

JARDUEREN TXOSTENA 2024



Gizakia
Pertsona bat, etorkizun bat
Una persona, un futuro

AURKIBIDEA

GIZAKIA LABURBILDUTA	04
ESKU-HARTZE EREDUA	05
NOLA EGITEN DUGU LAN ?	06
GIZA TALDEA	10
GURE EGOITZAK	12
ARRETAREN ESKUMENA	14
• ADIKZIOEN ARRETA	16
• NERABEENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO ARRETA	22
• LANERATZEA	28
• ESKU-HARTZEA BIZTANLERIA OROKORRAREKIN	34
• SENTZILIBIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	36
GERTAERA GARRANTZITSUAK	40
EMAITZA EKONOMIKOAK	42

GIZAKIA LABURBILDUTA

MISIOA

Gizakia Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, erabilgarritasun publikokoa deklaratu, Bilboko Elizbarrutiak sustatua, eta esku-hartze integralak eta kalitate handikoak eskaintzen ditu honako arlo hauetan:

- Nerabezaroan arrisku-jokabideen prebentzioa.
- Adikzioak dituzten pertsonen tratamendua eta gizarteratzea.
- Enplegatzeke zailak diren taldeak laneratzea.
- Profesionalentzako eta, oro har, gizartearentzako sentsibilizazioa eta prestakuntza.

Horiek guztiak beren familia- eta gizarte-inguruneekin partekatutako proiektu batean, eta gainerako baliabide komunitarioekin sarean.

IKUSPEGIA

Bizkaiko gizartearen barruan, eremu soziosanitarioan erreferente izan nahi dugu, gurekin lan egiten duten kolektiboen behar aldakorrei erantzun berritzaile egokiak emateko gaitasunarekin.



BALIOAK

Hauk dira gure lanaren oinarri diren balioak:

1. Elkartasuna.
2. Pertsonaren protagonismoa.
3. Berdintasunaren sustapena.
4. Arreta integrala.
5. Gaitasun profesionala.
6. Parte-hartzea.
7. Gardentasuna.
8. Sareko lana.
9. Nortasuna.



ESKU-HARTZE EREDUA

Gizakia Fundazioan eredu biopsikosozialetik lan egiten da, jasotzen ditugun eskaera ugariei erantzun integral eta pertsonalizatua ematen saiatuz. Horretarako, diziplina anitzeko taldeak eta hainbat alorretako baliabideak daude (osasun-, gizarte-, hezkuntza- eta lan-prestakuntzakoak), eta sarean lan egiten da esku-hartzea koordinatzen duten beste erakunde batzuekin.

Gaur egun, esku hartzeko protokolo bereziak daude, genero-beharrak, profil batzuen berezitasunak eta arazo gehigarriak dituzten pertsonentzako tratamendu espezializatuak aintzat hartzen dituztenak.

GIZARTE ZERBITZU SISTEMAREN PRESTAZIOAK



Esku-hartze
psikosoziala

Gizarte-hezkuntzako
esku-hartzea

Txertatzeko
laguntza.

Familientzako
laguntza.

OSASUN-SISTEMAREN PRESTAZIOAK



Ordezkapen
tratamenduak

Arreta psikologikoa

Kalteen
murrizketa

Arreta
medikoa/psikiatrikoa

Desintoxikazio
anbulatorioa

ENPLEGU SISTEMAREN PRESTAZIOAK



Lan-orientazioa

Formakuntza
enplegarritasunean
oinarritua

Bitartekaritza
eskulanean

NOLA EGITEN DUGU LAN?

Gizakiak **arreta integrala** eskaintzen du, **pertsonarengan zentratua**, hasierako kasuaren ebaluzazioan oinarritutako **banakako planetatik** abiatuta, eta, nola badagokio pertsona horrekin jada lanean ari diren erreferentziatzeko profesionalekin kontrastatua, gainerako eragileen **eskuhartze integratu eta kordinatua** eskaintzeko.



Arretako plan indibidualak pertsona erabiltzailearekin **adostu eta aldizka berrikusten dira**, prozesuaren une zehatzera eta pertsonaren beharretara egokitzeko.

“

Banakako planak eskaintzen ditugu, ikuspegi integral batetik, pertsonan zentratuta, genero-ikuspegiarekin eta gizarte-, lan- eta komunitate-inklusioren aldeko apustu argiarekin.

”

Arreta soziala, osasungintza eta enplegua eskaintzen dugu,

- modu integratuan,
- diziiplina anitzeko eta esperientzia handiko profesionalekin,
- eta eskaintzak pertsonen beharretara egokitu daitezke,

laguntza malgu eta egokitu bat emateko, eskatzen den exigentzia eta intentsitatearen arabera.



Eskuragarri dauden prestazio eta zerbitzuak, banakako planak pertsonalizatzeko aukera ematen du:

- **Pertsonen beharretara eta denborara egokitutako ibilbideekin.**
- **Gizarte eta osasun ikuspegiarekin,** gizarte laguntza eta arretaren jarraitutasuna eskainiz prozesu osoan zehar.
- **Irabazi-asmorik gabekoa.** Interes sozialekoa deklaraturako onura publikoko fundazioa gara.
- **Arreta unibertsala** eskaintzea, inor arrazoi ekonomikoengatik atzean utzi gabe, erakunde publiko eta pribatuen finantzaketari eta dohaintzei esker.



“
Pertsonen beharretara egokitutako ibilbideak ahalbidetzen dituen zerbitzu eta erosotasun sorta zabala.
 ”



- **Bizkaiko** Lurraldean guztiz ezarrita.
- **Boluntarioen** elkartasuna gure proiektuetan txertatzea.
- Gizarte, osasun eta enplegu esku-hartzeetarako **sare publikoen** parte gisa.
- **Hirugarren sektoreko sareekin** lan egitea.



- **Esku-hartzean esperientzia zabala eta ezagutza espezializatua** eskaintzea.
- Kudeaketan **kalitatea eta gardentasuna** bermatuz.
- **Berrikuntzarekin** eta gure zerbitzuak gizartearen benetako **beharretara** egokitzeko konpromisoa dugu.

Gizakiaren eskuhartzea oinarritan duten **balioak** bat datoz 2030 AGENDAN zehazten diren **GJHeKin**, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan globala. Gizakiak kontuan hartzen ditu GJHak bere proiektuak eraikitzeko eta garatzeko; erakundearen lanarekin zuzenean lotuta dauden GJHak nabarmentzen ditugu.





Pobreziaren amaiera:

Gizarte- eta lan-inklusio osoa bilatzen duten, biztanleria zaurgarriari eta bazterketan dagoenari zuzendutako programak garatuz.



Osasuna eta ongizatea.

Menpekotasuna eta buruko osasun arazoak dituzten pertsonekin lan egitea. Arriskuen eta kalteen murrizketa, tratamendua eta ohitura osasungarrien sustapena sustatzea.



Kalitatezko hezkuntza.

Lan merkatura sartzeko gobernuek eta enpresek aitortutako prestakuntza eskaintzea.



Genero berdintasuna.

Genero-berdintasuna.

Desberdintasunen murrizketan eta gizarte berdinzaleago baten sustapenean konprometitua, helburu horri zuzendutako programak eta ekintzak garatuz.



Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.

Ezagutza eta eskubide eta betebeharren erabilera ere lantzen diren ibilbideak garatuz, lan-gaitasunak soilik ez.

Pertsona bakoitzaren ahalmen osoaren garapenaren aldeko inklusioa sustatuz.



Desberdintasunen murrizketa.

Pertsonaren osoko integrazioaren alde ikuspegi integral batetik lan eginez, eta horrek esan nahi du oztopoak eta desberdintasunak ezabatzearen alde borrokatzea, haiek beren eskubideak eskuratu edo erabili ez ditzaten eragozten duten arrazoi guztiengatik: lan-arrazoiengatik, arraza edo jatorrizko herrialdeagatik, erlijioagatik, hizkuntzagatik, osasun-egoeragatik...



Helburuak lortzeko lankidetzak

Beste gizarte-erakunde batzuekin lankidetzan arituz, administrazioekin koordinazioan eta elkarlanean, eta gure jarduera-eremuekin (mendekotasunak, enplegua, bazterketa, emakumea, familia, haurrak eta gazteak) lotutako gizarte-sektoreko plataformen eta sareen parte izanik. UNAD, CEAA, ESEN, Incorpora, EAPN, REAS, BesteBi, ESI, Emakumeok Bidean... bezalakoetan parte hartzen dugu.

GIZA TALDEA



Fundazioak diziplina anitzeko lan-talde bat du, eta honako hauek osatzen dute: langile kontratatuak, zerbitzu-emate kontratua duten langileak (batez ere ekintza puntualak eta/edo profil profesional zehatzak egiten dituztenak) eta boluntarioak. 2024an zehar, Gizakiak guztira 71,73 lanaldi izan ditu bere jarduerak garatzeko, eta horrek 10,02 lanaldiko igoera suposatzen du.


71,73

GOGO BETETZE INDIZEA

7,98

LANGILEEN EGITURA SEXUAREN ARABERA


Profilari dagokionez, plantilla gehienbat emakumez osatuta dago oraindik (langileen %72) eta, psikologiarekin eta gizarte-hezkuntzarekin lotutako profilek dira nagusi.



LANGILEEN ANTZINATASUNA

Langile guztien artean, nabarmendu behar da % 55ek 10 urte baino gehiago daramatela fundazioan.

%53



PROFIL PROFESIONALAK



BOLUNTARIOTZA

Gizakia Fundazioa ekimen sozial batetik sortutako irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Sortu zenetik, esku-hartze eredu mantendu du, non boluntarioen lana eta lankidetzak bere jarduerak guztien oinarritzko zutabe izan diren.

Orain arteko boluntarioen lankidetzak aukera eman du hainbat jarduerak garatzeko, zerbitzu desberdinetan eskaintzen den arretaren hobekuntza ahalbidetuz.

- Hurbileko arreta harreran eta telefonoz.
- Hainbat jatorritako profesionalentzako lankidetzak eta laguntza: medikuak, erizainak, gizarte langileak, etab.
- Erabiltzaileentzako tailer edo ikastaro desberdinen garapena.
- Administrazio edo idazkaritza-zereginak indartzea.
- Familia-laguntzarik gabeko pertsonen laguntza tratamenduan zehar: Osasun-zentroak, epaitegiak, espetxeak, Gizarte Zerbitzuak, etab.
- Dokumentuen eta materialen lekualdaketa zentroen artean, asteen behingo elikagai-bankuko bilketa...



BOLUNTARIO ETA LAGUNTZAILEEN KOPURUA

53

♀ %60

GOGO BETETZE INDIZEA

9,67

GUERE EGOITZAK



DEUSTO

**ZERBITZU OROKORRAK. LANERATZEA ETA EGOITZARIK
GABEKO ARRETA, MENPEKOTASUNAK DITUZTEN
PERTSONENTZAT ETA HAIEN FAMILIENTZAT.**

**MADARIAGA ETORBIDEA 63. 48014.
BILBO**

LEHENDAKARI AGUIRRE

**ARRISKU-JOKABIDEAK DITUZTEN NERABEEI ETA HAIEN
FAMILIEI ARRETA EMATEA.**

AVENIDA LEHENDAKARI AGUIRRE 133. 48015. BILBAO



GORDEXOLA

**MENPEKOTASUNAK DITUZTEN PERTSONEN EGOITZA-
TRATAMENDURAKO KOMUNITATE TERAPEUTIKOA.
PRESTAKUNTZA ZENTROA.**

BARRIO ZUBIETE, 59. 48192. GORDEXOLA

BAILEN

**MENDEKOTASUNAK ETA KONTSUMO AKTIBOA DUTEN
PERTSONENTZAKO GAINBEGIRATUTAKO KONTSUMO
PROGRAMA ETA GIZARTERATZEAREN SUSTAPENA.**

BAILEN 1, SUBSÓTANO. 48003. BILBAO





ARRUPE ETXEA

TOKIKO ARRETA. ERDU ETA ENPLEGU ORIENTAZIOA

PADRE LOJENDIO KALEA, 2. 48008. BILBO

ETXEBIZITZAKO BALIABIDEAK

EGIZU

2 pisu, mendekotasuna duten pertsonen gizarteratzea eta tratamendu prozesuak sustatzen dituztenak



EKIN

Emakumeen inklusio prozesuetarako laguntza solairua



ARRETAREN ESKUMENA



Gizakia

Adikzioak
Adicciones

ARTATUTAKO PERTSONAK



1861 ♀ %26

- Menpekotasunak dituzten pertsonak.

1460 ♀ %14

- Menpekotasuna duten pertsonen senideak

401 ♀ %68

MENDEKOTASUN ARRETA INTEGRALA

SUBSTANTZIEN ERABILERA

ALKOHOLA, KOKAINA, HEROINA,
KANNABISA, PSIKOFARMAKOAK, ETA ABAR.

JOKO PATOLOGIKOA

BESTE JOKABIDE-
MENDEKOTASUN BATZUK
SEXUA, EROSKETAK, ETAB.



IKUSPEGI
ZABALAK

- Arrisku eta kalteen murrizketa.
- Komunitateko arreta.
- Anbulatorioan.
- Etxebizitza.



INTENTSITATE MAILA
DESBERDINAK



ESKARI MAILA
DESBERDINAK

Gizakia

Alholkularitza
Asesoramiento



“

... eta

1602

pertsona sentibilizazio-ekintzetan...

♀ %50

”



Gizakia

Nerabeak
Adolescentes

ARTATUTAKO PERTSONAK



535

♀ %54

- Nerabeen senideak.

370 ♀ %58

- Nerabeak - Gazteak (12-21 urte)

165 ♀ %45

KONTSUMOAK ETA
JOKABIDE
ARRISKUTSUAK

JOKOEN ETA
TEKNOLOGIAREN
GEHIEGIZKO ERABILERA

HARREMAN
TOXIKOAK

Gizakia

Laneratzea
Inserción laboral



ARTATUTAKO PERTSONAK



1152

♀ %50

ORIENTAZIOA

PRESTAKUNTZA

BITARTEKARITZA

- Lan-bitartekaritzan laguntzen duten enpresak

134

- Prestakuntza ekintzak

37

ADIKZIOEN ARRETA

Menpekotasun mota guztietarako arreta eskaintzen dugu, alkoholdunak zein jokoarekin lotutakoak barne, tratamendu pertsonalizatuak proposatuz, egoitzan zein anbulatorioan, **gizarte integrazioa** helburu nagusitzat hartuta.

Horretarako, hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, adikzioak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko. Kolektibo honek **profil oso anitzak aurkezten ditu: adina, kontsumo mota eta iraupena, bizimoduak eta bestelako arazo gehigarriak, hala nola: gaixotasun mentala, beste adikzio batzuk, langabezia, epailearen ebazpenak...**

Era berean, kontsumo aktiboan dauden pertsonen arreta espezifikoak eskaintzen zaie, arrisku eta kalteen murrizketarako, komunitate-laguntzarako eta gizarteratze-prozesuak abiarazteko.

ZERBITZU-ZORROA

- **ERDU.** Esku-hartze komunitarioa.
- **CeSSAA. Anden 1.** Kontsumo gainbegiratua.
- Opioideen bidezko **tratamendu ordezkoa** (metadona, eta abar).
- Esku-hartzea **espetxe-zentroetan**.
- **EKIN.** Indarkeria matxistaren biktima diren eta osasun mentaleko eta/edo adikzio arazoak dituzten emakumeentzako arreta zerbitzua.
- **MADARIAGA.** Eguneko Zerbitzua.
- **GORDEXOLA.** Egoitza-tratamendua: Komunitate Terapeutikoa.
- **EGIZU.** Tratamendua laguntzeko etxebizitza.
- **KAIA.** Tratamendu anbulatorioa eta gizarteratze-prozesuetarako laguntza.
- **JOKAERA.** Jokoarekiko mendekotasunaren tratamendua.
- **GARAPENA.** Tratamendurako Eguneko Zentro Intensiboa.
- Tratamenduan dauden **Emakumeentzako** arreta espezifikoak.
- Adikzioak dituzten pertsonentzako **tratamendu osteko** laguntza-zerbitzua.
- **Familientzako** laguntza.

HARTZAILEAK

- Substantzia psikoaktiboen kontsumitzaileak edo jokabide-mendekotasunen bat duten pertsonak, Bizkaian bizi direnak eta substantzien abusu edo mendekotasun irizpideak betetzen dituztenak (DSM-Vren arabera), eta aldi berean, zaurgarritasun edo gizarte-bazterketa egoeran jartzen dituzten hainbat faktore metatzen.
- Goian aipatutako pertsonen **senideak**.

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA

1861

POZIKTASUN INDIZEA **8,87**

ARRAKASTA-TASA **68,77**
(kontsumo-gelarik gabe)

JARRAIPEN-INDIZEA **76,62**

MENDEKOTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK

1460

♀ %14


FAMILIAKO KIDEAK

401


♀ %68

ZERBITZU BAKOITZEAN ARTATUTAKO PERTSONAK


(pertsona batek zerbitzu bat baino gehiago erabil dezake)



ARTATUTAKO PERTSONEN ADINA



LEHENTASUNEZKO KONTSUMOKO SUBSTANTZIA




Nabarmendu beharreko aspektuak:

- %16ak pregabalina kontsumitzen du, batez ere kalean bizi diren migratzaileengan zentratuta.
- Emakumeen kasuan, kontsumoak are gehiago biltzen dira heroina (%41) eta kokaina (%39) inguruan.
- ERD programetan dauden emakumeen artean, gehien erabiltzen den substantzia alkohola da (% 48), eta ondoren kokaina (% 22). Tratamenduan dauden emakumeen artean, anfetamina kontsumoaren ehuneko handiagoa ikusten da (% 8, batez beste % 4rekin alderatuta).

PORTAERA-JOKABIDEKO MENPEKOTASUNAK:


Adikzioen arloan tratamendua jasotzen ari den biztanleria osoaren % 7,4ak portaera-jokabideko menpekotasunarekin lotutako arazoak aurkezten ditu, gehienetan jokoarekin lotuta.

ARTATUTAKO BIZTANLERIAREN JATORRIA (ETORKIN POPULAZIOA)



- Artatutako pertsonak, batez ere Ipar Afrikatik eta Latinoamerikatik dator.

EGOITZA-BEHARRA.




Etxerik gabeko pertsonak edo aterpetxeetan, ostatu kolektiboetan, txaboletan... bizi direnak, esku-hartzearen arrakasta kolokan jartzen dute.

PATOLOGIA BIKOITZA

Menpekotasunengatik artatutako pertsona guztien artean, % 56ak osasun mentaleko patologia diagnostikatua du. Emakumeen kasuan, portzentai hori %65era iristen da.

Azpimarratzen dugu **Komunitate Terapeutikoan** artatutako pertsonen % 88k diagnostiko hau dutela.




LANBIDE-EGOERA

• Komunitatearen Arreta eta Giza

Baliabideak: Artatutako biztanleriaren %89 aktibo ez den populazioa da: %73 langabeak, %12 pentsiodunak eta %2 ikasleak. Aitzitik, %12 aktiboak dira, eta horietatik %2 baja medikoan daude.

• Menpekotasunen tratamendua:

Artatutako pertsonen %69 aktibo ez den populazioa da: %56 langabeak, %9 pentsiodunak eta %3 ikasleak. Aitzitik, %31 aktiboak dira.




PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA


- Artatutako pertsonen %60ak, gehienez, Derrigorrezko Hezkuntzaren helburuak lortu ditu.

EREMUKO FINANTZAKETA

• ESPARRUAREN ARABERA



• JATORRIAREN ARABERA



TESTIGANTZAK

«...nire egonaldian jasotako babesari eta laguntza funtsezkoak izan dira nire suspertze prozesuan.»

«Nigan sinetsi zuten eta aurrera egiteko indarra aurkitu dudan espazio seguru eta atsegina eskaini zidaten.»

Hemen lan egiten duten profesionalen babesari esker, pixkanaka ikasi dut bizitza lasai eta ahalik eta beteena izateko norabide egokia aurkitzea etengabeko lana dela.

Hona iritsi arte ez nintzen konturatzen nire baitan aldatu beharreko gauza kopuruaz. Pazientziaz eta adeitasunez, ikasi dut egunerokoa niretzat osasuntsu eta egokien kudeatzen.

Hemen eskaini didaten babesari eta laguntza baliotsuari esker, denbora eta baliabideak nigan inbertituz, gaur egun bizitza lasai eta eskertua daramat.

FINANTZATZAILE NAGUSIAK



BESTE LAGUNTZAILE BATZUK



NERABEENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO ARRETA

Arrisku-jokabideen prebentzioa nerabeen artean, laguntza eta arreta psikosoziala zein terapeutikoa eskaintzen duen zerbitzu baten bidez, bai banaka bai taldean, 12 eta 21 urte bitarteko nerabeei eta haien familiei, **arrisku-jokabideak** dituzten kasuetan.

Arrisku-jokabidetzat hartzen dira denboran zehar mantenduz gero nerabearen heldutasun-prozesua eta gizarteratzea zaildu dezaketen jokabide guztiak.

Arreta jasotzen duten arrisku-jokabideen artean honako hauek nabarmendu daitezke: eskola-porrota eta/edo eskolako absentismoa, etxetik alde egitea, familia-harreman gatazkatsuak, lapurreta txikiak edo delinkuentziaren bestelako adierazleak, droga-kontsumoaren hasiera, alkoholaren gehiegizko kontsumoa, oldarkortasun-egoerak...

EKINTZA-LERROAK

Esku-hartzeak bi fase ditu: diagnostiko-balorazioa eta esku-hartze psikosoziala, banakoa eta/edo taldekakoa izan daitekeena. Lau jarduera-ildo eskaintzen dira:

- Nerabeentzako eta haien familientzako **ebaluazio eta esku-hartze zerbitzu laburra**.
- Arrisku-jokabideen prebentzioa. **HIRUSTA** Programa.
- Genero-indarkeriaren egoeren prebentzioa. **ITZARTU**.
- Jokoen eta teknologia-abusuaren prebentzioa. **JOKAERA**.

HARTZAILEAK



- Arrisku-jokabidean dabiltzan edo arriskuan dauden 12 eta 21 urte bitarteko nerabeak.
- Nerabeen senideak (amak, aita, nerabeen senideak edo tutoreak), haien ardurapean dauden nerabeekin lotutako arazoei buruzko laguntza edo orientazioa eskatzen dutenak.

Erakundeetan bizi diren adingabeen kasuan, koordinazio-mekanismoak ezarriko dira tutoretza juridikoa duen erakundeak izendatutako hezkuntza-taldeekin.

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA

535



NERABEAK

165



%45

- ARRAKASTA-TASA 77,51
- ATXIKIPEN-TASA 83,18

POZIKTASUN INDIZEA

9,27

FAMILIAKO KIDEAK

370




%58

- ARRAKASTA-TASA 85,29
- ATXIKIPEN-TASA 89,96

GOGOBEKETZE INDIZEA


9,29

NERABEEN ADINA




- Artatutako nerabeen artean, gehienak 14 eta 16 urte bitarteko adin-tartean daude.

KONTSULTAREN ARRAZOIA




ARTATUTAKO KASUAK




ARTATUTAKO BIZTANLERIAREN JATORRIA

Nerabeen Arloan artatutako biztanleriaren %12 migratzailea da. Horietatik, %8 Latinoamerikatik dator.




NOLA EZAGUTU DUTE ZENTROA?




Arreta ematen zaion biztanleriaren % 59 hezkuntza-zentroetako, gizarte-zerbitzuetako eta osasun-zentroetako profesionalek bideratu dituzte, eta hauek Nerabeen eta Familiaren Sailarekin zuzenean harremanetan daude. Datu hau esanguratsua da, Gizakiak konponbideak eskaintzen dituen arazoak identifikatzen diren hainbat esparru erakusten dituelako.

FAMILIA MOTAK



FAMILIA AURREKARIAK




KONTSUMOAK ETA ARRISKU-JOKAERAK

277 KASUAK

202 Familiako kideak

75 Nerabeak




ARAZO-JOKOAK ETA TEKNOLOGIAREN GAIZTO ERABILERA

93 KASUAK

71 Familiako kideak

22 Nerabeak




GENERO INDARKERIA - HARREMAN TOXIKOAK

75 KASUAK

45 Familiako kideak

30 Nerabeak




EREMUKO FINANTZAKETA

• ESPARRUAREN ARABERA



• JATORRIAREN ARABERA



TESTIGANTZAK

"Pertsonalki, esperientzia asko gustatu zait.

Hemen lan egiten dutenek pasioz eta maitasunez egiten dute lan, eta hori nabaritzen da.

Oso lagunduta, ulertuta eta zainduta sentitu naiz".

"Gaur sentitzen dugu, dena konponduta ez dagoen arren, aurrera goazela elkarrekin, kontzientzia handiagoarekin, tresna gehiagorekin eta lasaitasun handiagoarekin."

“

"Gure seme nerabearen portaeragatik oso kezkatuta etorri ginen programara; galduta sentitzen ginen, eta hein batean errudun.. Prozesuan zehar, etapa konplexu hau hobeto ulertzen ikasi genuen, gure zailtasunez eta gure familiari nola eragiten zioten jabetuz. Bikote gisa, berriro konektatu eta elkarri lagundu ahal izan genion, eta hori ezinbestekoa izan da aldaketak mantentzeko."

”

FINANTZATZAILE NAGUSIAK



LANERATZEA


Zerbitzu honek enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei laguntzen die. Lan-merkatuan sartzeko aukerei dagokienez egoera ahulean dauden pertsonei zuzenduta dago.

Programaren helburua da laneratzea eta lanpostua mantentzea sustatzea, gaitasunak garatuz eta autonomia, autoestimua eta erantzukizun maila handiagoak eskuratuz.

ENPLEGU ORIENTABIDEA

Erabiltzaileari laguntza ematera bideratutako zerbitzua da, pertsona gaitasun pertsonal, sozial eta laboralak garatzeko prozesuan lagunduz. Helburua da lanerako posizio egokiago batean kokatzea eta lanpostu bat eskuratzeko eta mantentzeko aukerak erraztea.

Ekintza hauek aurrera eramateko, Gizakia Fundazioak Lanbide - EAEko Enplegu Zerbitzuaren Orientazio eta Enplegu Zentroko zerbitzuekin lankidetzan aritzen da.



ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA

1152

%51
♀

GOGO BETETZE INDIZEA 9,77



Urtean zehar, 1.152 pertsona artatu dira, eta horiek enplegurako orientazio eta prestakuntza ekintza ezberdinetan parte hartu dute. Lanbiderekin -Euskal Enplegu Zerbitzuarekin- egindako akordioei eta urtean zehar abian jarritako prestakuntza-programa berriei esker, prestakuntza-programarekin jarraitzea lortu da.

BANAKAKO ORIENTAZIO ARRETA ORDUAK

3.050


LAN BILATZEN ARI DIREN PERTSONAK

173 ♀ %60


LAN BILAKETA AKTIBOA HASTEN DUTEN PERTSONEN LAN-KOKAPENA

%80,33

ZERBITZATUTAKO BIZTANLERIAREN KARAKTERIZAZIOA




ADINA



Arreta mantentzen da bai Fundazioaren beste programen bidez bideratutako pertsonei bai Lanbideren -Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez bideratutakoei. Artatutako pertsonen kopurua aurreko urtekoa baino handiagoa izan da.

URTERO EKINTZAK LERRO BAKOITZAREN ARABERA



ENPLEGU-ZENTROA

Gune irekia da, astean **35 ordukoa**, eta pertsonak eskura dituzte beren lana bilatzeko behar dituzten tresna eta baliabide guztiak (Internetarako sarbidea duten ordenagailuak, prestakuntza- eta enplegu-eskaintzak, curriculumak prestatu eta bidaltzea, enpresen zerrendak...). Lana bilatzeko eta laneratzeko ibilbidean lagunduko dion orientatzaile baten gainbegiratua eta laguntza dute.



ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA

594 ♀ %51

BANAKAKO ESKU-HARTZEAK

1562

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Lan-munduan sartzea errazten duten pertsonen arteko harremanetarako jarrera, ohitura eta jokabide egokiak berreskuratzeko edo hobetzeko zeharkako prestakuntza eskaintzen du, bai eta lanbide-prestakuntza eta lanbide-gaikuntza hobea ahalbidetzen duten lanerako prestakuntza ere.

PERTSONA FORMATUAK

486

TREBAKUNTZA-ORDUAK

2924

PRAKTIKA-ORDUAK ENPRESETAN

2480

PRESTAKUNTZA EKINTZAK

37

GOGOBEKETZE INDIZEA **9,29**

ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA


Enplegarritasuna hobetzea du helburu, lan mundura egokitzeko eta lana mantentzeko beharrezkoak diren trebetasun bigunak: aldaketara egokitzea, sormena, lidergoa eta talde lana. Hogeita bost ikastaro eskaintzen dira.

- Lan-ingurunera bideratutako gizarte- eta norberaren trebetasunak.
- Enplegurako trebetasun pertsonalen prestakuntza.
- Enplegarritasunerako oinarritzko gizarte-laboraleko trebetasunak.
- Aukera berdintasunaren inguruko kontzientziazioa areagotzea.
- Trebetasun digitalak (informazioaren bilaketa eta kudeaketa; ordenagailuen ezagutza; kalkulu-orriak; interneteko bilaketak;...)

LANBIDE-HEZIKETA

Gaur egungo lan merkatuan eskatzen diren profil profesionaletan oinarritzen da, lan-indarrerako sarbide hobea eskainiz. Hamabi ikastaro eskaintzen dira.

- CP Eraikin eta lokaletako gainazalen eta altzarien garbiketa
- Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonentzako gizarte-osasun arreta.
- CP partziala. Arku elektriko bidezko soldadura elektrodo estaliekin.
- Mendeko pertsonen tratu txarren kasuan esku-hartze osoa.
- Mendekotasuna duten pertsonentzako errehabilitazio kognitibo osoa.
- Oinarritzko nekazaritza eta lorezaintzako lanak.
- Sukaldeko oinarritzko lanak.



LAN BITARTEKARITZA

Enpresekin eta erakundeekin harremanak ezartzen dira, gurekin lan egiten duten pertsonen kontratazioa bultzatzeko eta enplegu-eskaerak jasotzeko.

Lan-artekaritza egiten da, eta kontratazioen jarraipen individualizatua burutzen da, bai langilearekin bai enpresarekin, ahalik eta egokitzapen onena sustatzeko.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak hauek dira:

- Lan-eskaintzen kudeaketa enpresen beharren arabera.
- Profil anitzeko pertsonak hautatzea.
- Ikasleen praktikak enpresetan.
- Jarraipena eta laguntza lan-harremanean.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratze Zentro Laguntzailea gara, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak baimendutako Laneratze Agentzia.

Era berean, La Caixaren Incorpora Euskadi programaren parte gara.

**HARREMANETAN
JARRITAKO ENPRESAK**


134

**KUDEATUTAKO
ESKANTZAK**


64

EREMUKO FINANTZAKETA

• ESPARRUAREN ARABERA



• JATORRIAREN ARABERA



TESTIGANTZAK

Une honetan primeran nago. Ikastaroari esker, praktikak leku sinestezin batean egiteko aukera izan nuen, eta horiei esker, kontratatatu egin ninduten, eta gaur egun langile finkoa naiz!

Beti eskertuko dut nire aldeko apustua egin zuen jendea, trebatu nintzen eta azkar aurkitu nuen lana. Ez dakizue zer nolako zoriona dudan, eta nik bezala, zenbait lankide.

Zentroan jasotako tratuak zoragarria izan da; beti arduratu dira nirekin, eta arazo edo zalantzarik izan dudanean, lagundu didate hauek konpontzen.

Ikastaro hau amaitu ondoren, hainbat aldiz deitu didate lan eskaintzeko.

FINANTZATZAILE NAGUSIAK



lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA
EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA



Europar Batasunak
kofinantzatuta
Cofinanciado por
la Unión Europea

BESTE LAGUNTZAILE BATZUK



BIZTANLERIA OROKORRAREKIN ESKU-HARTZEA

Gizartea oro har mendekotasunarekin lotutako arriskuei, bizimodu ohitura osasungarriagoak sustatzeari eta arrisku-jokabideetan goiz detektatzearen eta esku-hartzearen garrantziari buruzko kontzientziazioa piztea du helburu. Horretarako, profesionalentzako, gurasoentzako eta hezitzaileentzako prestakuntza-jarduerak garatzen ditu, baita Fundazioaren jarduerekin lotutako arloetan beste erakunde batzuei laguntza teknikoa eta aholkularitza ere.

Lan-ildo honek boluntariotza sustatzeko ekintzak ere barne hartzen ditu, nahiz eta prozesu bereizi baten bidez kudeatzen diren.

PARTE HARTZAILEEN KOPURUA

1602

♀ %50

GOGO BETZE INDIZEA

8,3

EKINTZA-LERROAK


Horretarako, Fundazioak hainbat ekintza-ildo garatzen ditu, hala nola sentsibilizazio kanpainak eta tailerrak, tailer teknikoak, prestakuntza eta aholkularitza programak, baita boluntariotza sustatzearekin lotutako zerbitzu espezifikoak ere, sentsibilizazio eta gizarte-hedapen jarduerekin estuki lotuta daudenak.

HARTZAILEAK

Fundazioaren esku-hartze arloetako batekin lotutako biztanleria orokorra, baita lan egiten dugun sektoreetako profesionalak eta erakundeak ere.



ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN / ERAKUNDEEN KOPURUA



PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO SOZIALEKO EKINTZAK

1.549 pertsonak parte hartu zuten urtean zehar egindako prestakuntza eta/edo sentsibilizazio jardueretan:

- Substantziadun eta substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioari buruzko **gazte eta nerabeei** zuzendutako prestakuntza. (4.523 pertsona)
- **Gurasoei** eta gazteekin esku hartzen duten **profesionalei** zuzendutako prestakuntza. (155 pertsona)




EREMUKO FINANTZAKETA

• ESPARRUAREN ARABERA



• JATORRIAREN ARABERA



SENTZILIBIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

PONENTZIAK, ARGITALPENAK ETA ARTIKULUAK

- ““Joko arazoak dituzten kasuen detekzioa gazteen artean”- gakoak, analisia eta hausnarketa” – UNADen Nerabezaroaren Batzordearen jardunaldia. Erdoitza Unanue
- "Jokaera programaren emaitzak nerabeetan" – UNADen Joko Patologikoari buruzko jardunaldia. Maider Landeta
- "Hezkuntza, arautzea eta aliantzak: pantailen erabilera arduratsua kontrolatzeko erronkak" – UNADen Agenda 2030ean laguntzeko Aliantzen jardunaldia. Erdoitza Unanue
- "Nola kudeatu haur eta nerabeen ondorez emozionala" – EAPNren Nerabezaroaren Batzordearen jardunaldia. Erdoitza Unanue
- "Substantziarik gabeko mendekotasunak desgaitasun intelektuala duten pertsonetan" – Substantziarik gabeko mendekotasunei buruzko online mintegia, UNAD – Plena Inclusión. Olaia Aizpiri
- "Ur Zabaleko Igeriketaren Erronka" - 13. Patologia Dualaren Biltzarra. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea. Ainara Sanchez.
- "Eguneko Zentrotik Psikosi, Menpekotasun eta Trauma Gaixoei Buruzko Gogoeta Praktikoak" - 13. Patologia Dualaren Biltzarra. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea. Asier Zarraga.
- "Kalteen Murrizketa eta Larrialdiei Erantzuna" - Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko profesionalentzako Menpekotasun Batzordea. Marta Fernández de Aguirre.
- "Substantzien bidez mendekotasunei heltzea" - Bizkaiko Psikologia Fakultatea. Ibón Olmos.
- "Substantzien eta substantzia ez diren mendekotasunei heltzea" - Kirol Fundazioko teknikarientzako mintegia. Ibón Olmos.



IKERKETETAN PARTE HARTZEA

- EAEko hirugarren sektoreko gizarte-erakundeentzako ingurumen-, gizarte-eta gobernantza-adierazleak - UPV/EHU - EDE.
- Genero-indarkeria eta mendekotasunak batera lantzen dituzten osasun-baliabideen inbentarioa - Droga Plan Nazionala (PNSD) eta Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioa (FEMP).
- 2024ko UNAD-en Menpekotasunak dituzten Pertsonen Profilaren Ikerketan parte hartzea.
- Tratamenduaren eraginkortasunaren ebaluazioa - Navarrako Unibertsitate Publikoa.
- SYDRES Proiektua - Europako ESCAPA Sarea. Droga eta Menpekotasunen Europako Behatoki Zentroa.
- Drogen kontsumoarekin lotutako kalteak murrizteko zerbitzuetan (DRS) ebaluazio eta jarraipen sistema integratu bat hobetzea eta ezartzea - Osasun eta Komunitate Fundazioa.

BISITAK ETA AURKEZPENAK


- Osasun sailburua, Gotzone Sagarduy.
- Gizarte Politiketako sailburua, Nerea Melgosa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Inklusioko zuzendaria, Oscar Seco.
- Bilboko Udaleko Osasun zinegotzia, Álvaro Pérez.



FOROETAN PARTE HARTZEA

- UNAD Euskadiko Zuzendaritza Batzordea
- EAPN Euskadiko Zuzendaritza Batzordea
- Osasun Sailaren Hirugarren Sektore Sanitarioaren Batzorde Estrategikoa (Eusko Jaurlaritza)
- Eusko Jaurlaritzaren Droga-mendekotasunen Aholku Kontseilua
- Bilboko Udalaren Droga-mendekotasunen Aholku Kontseilua
- EAPNren Haurren Batzordea
- Migrazio eta Asiloaren Euskal Foroko Lan Batzordea
- UNAD – Mendekotasunen Arretarako Sarearen Droga-politika globalen batzordea
- UNAD – Mendekotasunen Arretarako Sarearen prebentzio batzordea
- ESiren (Bizkaiko Elizaren Gizarte Erakundeak) talde eragilea
- BizkaiaGara-ko boluntariotzako arduradunen foroa
- HIREKIN sareko Enplegu Inklusiboko talde eragilea
- HIREKIN sareko Prestakuntza eta Enpleguaren lan taldea
- HIREKIN sareko orientazio, bitartekaritza eta prospekzioaren lan taldea
- Bilbao Kirolak-ek antolatutako desgaitasuna duten pertsonentzako eta gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonentzako kirol batzordea

PARTE GAREN SAREAK



PRESENTZIA KOMUNIKABIDEETAN

- Mendekotasuna dutenen % 50ek patologia mentalak dituzte. Lehen ez zen lehen hainbeste ikusten. El Correo.
- "Familia-gatazkak dira nerabeen artean telefono mugikorren mendekotasunaren eragile." Zer beste abisu-seinale daude? Hoy por hoy (Cadena Ser).
- Conocemos a.... Gizakia. Hirekin
- Kokaina kontsumoak oldarkortasuna areagotzen du Bizkaiko gazteen artean. El Correo.
- Laguntza gaitzaren epidemiaren aurrean. El Correo.
- Elkartasuna bide orri gisa Bizkaian. El Correo.



BOLUNTARIOTZAREN DINAMIZAZIOA ETA SUSTAPENA

PARTE-HARTZEA

- -Bizkaiko **boluntario** erakundeek **foroan** parte hartzea.
- -**Martxoaren 8an**, boluntarioek erabiltzaile eta langileekin batera parte hartu zuten "**Emakumeen Eguna**" ospatzeko ekitaldietan.
- -**Deustuko Unibertsitateko BOLUNTARIOTZA ASTEA** astean parte hartzea.
- -**BForoak Nazioarteko Boluntariotzaren Eguna** dela eta antolatutako bileran parte hartzea.



JARDUERAK / TOPAKETAK

- Gizakiako boluntariotzaren urteko topaketa.



PRESTAKUNTZA

- **BizkaiaGara** eta **Bilboko Udalak** hainbat gairi buruzko prestakuntzan parte hartzea.

FINANTZATZAILE NAGUSIAK



GERTAERA GARRANTZITSUAK

2024an gure arreta erakarri duten elementuen artean, garrantzitsua iruditzen zaigu honako hauek nabarmentzea:

- **ADIKZIOEI ARRETA EMATEKO ESKAINTZA INTEGRALA SENDOTZEA**, emakumeei arreta emateko **EKIN** proiektuak hedatuz Bizkaiko Foru Aldundiarekin, enplegurako **IBILBIDE MISTOAK** Lanbiderekin eta intentsitate handiko arreta anbulatorioko **GARAPENA**rekin, Eusko Jaurlaritzaren eta hainbat erakunde pribaturen laguntzarekin.

Arreta komunitarioko eta arriskuak eta kalteak murrizteko programa espezifikoak daude mendekotasuna gainditzeko prozesurik nahi ez duten edo planteatzen ez duten pertsonentzat, tratamendu-programak mendekotasuna gainditu nahi dutenentzat (egoitzakoak zein anbulatorioak, intentsitate desberdineko proposamenekin eta portaera-adikzioetarako edo emakumeentzako eskaintza espezifikoekin), eta gizarteratzeko eta laneratzeko programak, tratamendu-prozesuetan integratzen direnak eta pertsonen mendekotasuna gainditzeko, indartzeko eta autonomiarako prozesuetan laguntzea ahalbidetzen dutenak, gizarteratzen eta komunitatean sartzen diren arte.



**14 PROGRAMA
ESPEZIFIKO**

- **MULTIPLIKATU EGIN DA ERDU PROGRAMATIK GARATUTAKO ARRETA**, komunitate-arretaren esparruan, 2024an 300 pertsona baino gehiago artatzeraino.



Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailak finantzatutako programa, bazterkeria larrian, etxerik gabe eta osasun mentaleko arazoak eta/edo kontsumoak dituzten herritarrei laguntzen eta egonkortzen laguntzen ari da, gizarte-eta osasun-arretako sareekin lotura egin dezaketen arte.

- Lanbidek sustatutako **'ERROLDATZE-IBILBIDEAK PRESTAKUNTZARAKO'** programaren bidez, migratzaileekin esku hartzeko lerro berri bat jarri da martxan, Salesianoak eta FVEM erakundeekin lankidetzan.



Lanerako sarbidea izateko orientazio, prestakuntza eta lanartekaritzarako ibilbide osoa eskaini ahal izan zaie lan-merkatuan sartzeko beharrezko baimenik ez zuten pertsona migratuei. Aukera honek itxaropena ematen die, bestela urteak itxaron beharko lituzketen lanerako benetako prozesuak egin ahal izateko.

- **EMAKUNDEK** Gizakia erakunde laguntzaile gisa aitortu du berdintasunaren arloan, gure erakundea eta zerbitzuak emakumeen behar espezifikoak egokitze eta genero berdintasunaren kultura maila guztietan sustatzeko urteetan zehar egindako lanaren ildoari jarraituz



- **GIZAKIAN HIZKUNTZA-NORMALIZAZIORAKO LAN-PROZESU** bati ekin diogu, erakundearen Euskara Planaren lehenengo edizioa martxan jarritz eta Gizakiaren lehen hizkuntza-mapa osatuz.

Planak bultzada handiagoa eman dio Gizakiaren parte-hartzeari Euskaraldian (Gizakiak urteak daramatza ekimen honetan parte hartzen), ekimen instituzional zehatzen bidez, bai lantaldeari bai zerbitzu desberdinetako erabiltzaileei zuzenduta



EMAITZA EKONOMIKOAK

KONTU-IKUSKARITZA

Gure ustez, gardentasuna funtsezko zutabeetako bat da gizarte-eraldaketako prozesuetan konprometituta gauden irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat. Gure kontuak Auren Auditores Norte, S.L. kanpoko enpresak ikuskatu ditu, funtzionamendu argiarekiko konpromisoaren adierazgarri.


EMAITZEN KONTUA

GASTUAK	EUROAK	%
1. Arretarako langileen kostuak	3.359.816,37	75,0%
2. Osasun-materialaren kontsumoa eta elikadura	205.241,05	4,6%
3. Esku-hartzearekin lotutako azpikontratazioak	63.451,30	1,4%
4. Errentamenduak	208.265,62	4,6%
5. Kanpo-zerbitzuak	177.451,21	4,0%
6. Ustiapeneko beste gastu batzuk	277.870,63	6,2%
7. Finantza-gastuak eta antzekoak	38.390,83	0,9%
8. Ibilgetuaren amortizazioa	145.023,04	3,2%
9. Aparteko gastuak	7.000,18	0,2%
GASTUAK GUZTIRA	4.482.510,23	100,0%


DIRU-SARRERAK	EUROAK	%
1. Hitzarmenak eta diru-laguntza publikoak	3.708.971,04	83,2%
2. Erakunde pribatuen diru-sarrerak	406.419,16	9,1%
3. Beste dohaintza eta ekarpen batzuk	132.857,63	3,0%
4. Beste askotariko zerbitzuak	177.171,59	4,0%
5. Beste sarrera batzuk	35.014,44	0,8%
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	4.460.433,86	100,0%

FUNTSEN JATORRIA ETA XEDEA

GASTUEN KALTE-ORDAINA, HELBURUAREN ARABERA



FINANTZAKETAREN JATORRIAREN LABURPENA





Gizakia

Pertsona bat, etorkizun bat
Una persona, un futuro

KONTAKTUA

Madariaga etorbidea, 63.
48014. Bilbao
94 447 10 33

www.gizakia.org
gizakia@gizakia.org

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

